



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

#### DEMA - Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia

**Ezagutzaren Industrien eta Teknologia Aplikatuaren Sektorearen Enplegu-Formakuntza Programan parte hartzen duten pertsonentzako oinarriak, Teknilan Plus proiektuaren barruan: enpleguari laguntza integrala emateko proiektu pilotua, barne hartzen dituena formakuntza eta enpresetako praktikak.**

Indarrean dagoen araudia betez, argitaratu egin dira Ezagutzaren Industrien eta Teknologia Aplikatuaren Sektorearen Enplegu-Formakuntza Programan parte hartzen duten pertsonentzako oinarriak, Teknilan Plus izeneko programa: enpleguari laguntza integrala emateko proiektu pilotua, barne hartzen dituena formakuntza eta enpresetako praktikak.

Barakaldon, 2023ko otsailaren 8an.—DEMA-Enpresa Garapenaren zuzendari-gereatea, María Victoria Riol Rojo



## 1. Oinarriak

Gora doa etengabe Informazio eta Komunikazioen Teknologietan (IKT) trebatutako profesionalen beharra. Europako Batzordearen kalkuluen arabera, 2022an bete gabe gelditu dira 756.000 lanpostu inguru. Testuinguru horretan, DEMak egitasmo bat jarri du abian informatika lengoaien programazioaren alorrean, aukera berriak emateko profil kualifikatu bat duten eta beren sektore profesionalan lanik aurkitzen ez duten pertsonen. Merkatuaren eskaera hau, gainera, aukera egoki bat da gutxieneko informatika trebetasunak dituzten langabeek denbora tarte labur batean beren burua birkualifikatzeko eta IKTen sektorean lana aurkitzeko.

Hori kontuan izanik, DEMak abian jarri du formakuntza programa pilotu bat, konbinatuko dituen, alde batetik, prestakuntza teorikoan oinarritutako birkualifikazioa eta, bestetik, sektoreko enpresetan eginiko praktikak.

DEMAk gidatutako Teknilan Plus proiektu pilotuak elkarlanean aritu behar du gizarte agenteekin, enplegu eta formakuntza proiektuen garapenean espezializatutako erakundeekin, beren esperientzia eta emaitzak egiaztatzeko moduan egongo direnak, gaitasun teknikoa eta ekonomikoa izango dutenak, hainbat sektore ekonomiko edo jardun eremutako ordezkari izango direnak eta harreman, baliabide, azpiegitura, metodologia sare bat eduki eta kudeaketa ahalmena izango dutenak.

Euskal Herriko Ezagutza eta Teknologia Industrien Elkarte (GAIA) sortu zen 1983an sortutako EAEko Teknologia Elektronikoen eta Informazio Teknologien Industrien Elkartetik, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu eta profesional gisa.

GAIAren egitekoa da lan dimentsio egoki bat bilatzea xede duten ereduak sortzea gero eta globalagoa eta integratzaileagoa den lehiakortasunaren aurrean, berrikuntza kolaboratiboan oinarritutako aliantza interprofesionalen bidez, balio kate berriak sortuz hainbat motatako enpresen lankidetzaren barruan: elektronikoa, informatikoa, aholkularitza, ingeniariaritza, telekomunikazioak eta gamifikazioa. Halaber, formakuntza-ekintza proiektuak garatuz, horietan parte hartzen duten pertsonen enplegarritasuna xede.

Teknilan Plus proiektu pilotuak bi jardun lerro ditu; hots, bi enplegu-formakuntza programa, GAIArekin batera diseinatuak, Bizkaiko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuaren Sektorean ordezkari handiena duen erakundea eta funtsezko eragilea dena bere sektoreko premiak detektatzeko eta profil eta gaitasun profesionalen eskaintzaren eta eskaeraren arteko egokitzapena errazteko.

## 2. Araudi aplikagarria

Teknilan Plus proiektu pilotuak aintzat hartuko ditu oinarri orokor hauek, indarrean egongo direnak programa amaitu arte (2023ko abenduraren 31).

## 3. Helburuak

Enpleguaren eskaintza eta eskaera bateratzeko, ezinbestekoa da jakitea zer behar duten enpresek eta erakundeek, horren arabera programak abiarazi eta enplegu-formakuntza prozesuak burutzeko. Beraz, programaren helburua bikoitza da:

1. Pertsonen enplegarritasuna hobetzea, bultzada emateko enplegutik eta enpleguranzko haien trantsizioei, haien garapen pertsonalari eta sustapen profesionalari.
2. Enpresen lehiakortasuna hobetzea, gaitasun profesionalak egokituta merkatuaren egungo eta etorkizuneko premietara.

## 4. Programaren deskribapena: faseak, edukiak eta betearazpen epeak

Teknilan Plus proiektua IKTen alorreko formakuntza egitasmo pilotu bat da, helburu duena programazio informatikoko postuak betetzea, laneratzeko zailtasun handiak dituzten langabeak birkualifikatuz, bateratuta bai enpresetako praktikak bai lan kontratazioa.

Helburu bikoitz hori betetzeko, enplegu-formakuntza programa hau planteatzen da, GAIArekin elkarlanean, sektoreko enpresen prospekzio lana egin eta gaur egun gehien eskatzen diren lanpostuak definitzeko. Horren arabera, bi formakuntza alor diseinatu dira



(Datuen analisia eta .net garapena), langabezian edo enplegua hobetzeko prozesuetan dauden pertsonak hautatzeari begira, gai izan daitezen beren enplegagarritasuna hobetzeko, formakuntzaren, akonpainamenduaren eta lan kontratu baten bidez jasoko duten esperientzia profesionalaren bidez, lan merkatuan sartzeko.

Programak bi fase izango ditu:

#### I. FASEA. — FORMAKUNTZA ETA PRAKTIKAK ENPRESETAN

Bi formakuntza ekintzek Coding Bootcamp metodologia erabiliko dute. Coding bootcamp-ak dira software garapenerako programa intentsiboak, eta haien ezaugarri nagusia da intentsitate altuko formakuntza, learning by doing motako gaitegi praktikoen baten bidez.

Formakuntza mota hau sortu da pertsona garatzaileak edo programatzaileak kontratatzearen enpresek duten premiatik. Programazio arloko formakuntza presentzial intentsibo bat da, gaitasunak ematen dituen software garatzaile gisa lan egiteko.

#### Formakuntza espezialitateak

Bi formakuntza espezialitate emango dira, LANBIDEk kudeatzen duen «Ekimen Privatuko Formakuntza Ekintzak» lerroaren barruan, erakunde horrek ikus-onesi eta ziurtatzen dituen Profesionaltasun Ziurtagiriei dagozkienak.

Ibilbide bakoitzak izango du 685 orduko eskola-karga teoriko-praktikoa, eta ezinbestekoa izango da bertaratzea formakuntza teoriko eta praktikoko orduen % 75era eta formakuntza modulu bakoitzaren %75era, gehienez ere 3 hutsegite justifikaturekin, eta ezinbestekoa izango da ere gainditzea hiru formakuntza moduluei dagozkien hiru azterketak eta amaierako proiektuarena, LANBIDEk dagokion Profesionaltasun Ziurtagiria lortzeko eskatzen dituen baldintzei jarraituz.

#### «Datuen analisia» ibilbidea

1. Formakuntza ikasgelan (510 ordu).
  - Datu Baseen hastapenak SQL lengoian (20 ordu).
  - Python hastapenak (30 ordu).
  - Data Analysis (160 ordu).
    - Datuen prozesaketa eta bisualizazioa.
    - Datuak atzitzea.
    - Datu Baseen plataformak eta prozesaketa hodeian.
  - Datuen analisirako estatistika (40 ordu).
  - Machine eta Deep Learning (90 ordu).
  - Datuaren kalitatea (20 ordu).
  - Datuaren bisualizazioa (50 ordu).
  - Proiektua (100 ordu).
2. Prestakuntza praktikoa enpresan (175 ordu).

Formakuntza teorikoa eta praktikaldia gaindituz gero, IFCD 211 «Kudeaketa eta informazio sistemak» profesionaltasun ziurtagiria lortuko da.

#### Non

- Saio teorikoak: Bilbo.
- Saio praktikokoak: Bizkaian kokatutako enpresak

#### Zeharkako formakuntza: Lan orientazioa

ibilbidea osatuko da 25 online ordurekin, aktibazioari eta lan orientazioari lotutako zeharkako gaitasunei buruzkoak, enplegua modu aktibo eta eraginkor batean biltzeko.

**Parte hartzaile kopurua**

Gehienez ere 17 pertsona hautatuko dira formakuntza ibilbide honetan parte hartzeko, 6. artikuluko baldintzak bete beharko dituztenak.

**Ikastaroaren iraupena eta datak**

Formakuntza edukiak emango dira 2023ko martxotik urrira (abuztua izan ezik); egunean 6 ordu ikasgelan eta egunean 7 ordu enpresetako praktikaldian.

**«.net garapena» ibilbidea**

1. Ikasgelako prestakuntza (510 ordu).
  - Web programazioa bezeroaren ingurunean 180 ordu.
  - Web dokumentuak sortzea marka lengoaien bitartez 60 ordu.
  - Software eta multimedia osagaiak garatzea eta berrerabiltzea gidoi lengoaien bitartez 90 ordu.
  - Erabilgarritasun eta irisgarritasun teknikak aplikatzea bezeroaren ingurunean. 30 ordu.
  - Web programazioa zerbitzariaren ingurunean. 240 ordu.
  - Web aplikazioak garatzea zerbitzariaren ingurunean. 90 ordu.
  - Datuetara sartzeko zerbitzariaren ingurunean web aplikazioetan 90 ordu.
  - Web aplikazio banatzaileak garatzea 60 ordu.
  - Web aplikazioak ezartzea internet, intranet eta extranet inguruneetan 90 ordu.
2. Prestakuntza praktikoa enpresan (175 ordu).

Formakuntza teorikoa eta praktikaldia gaindituz gero, IFCD 210 «Aplikazioen garapena web teknologien bidez» profesionaltasun ziurtagiria lortuko da.

**Non:**

Saio teorikoak: Bilbo.

Saio praktikokoak: Bizkaian kokatutako enpresak.

**Zeharkako formakuntza: lan orientazioa**

Ibilbidea osatuko da 25 online ordurekin, aktibazioari eta lan orientazioari lotutako zeharkako gaitasunei buruzkoak, enplegua modu aktibo eta eraginkor batean bilatzeko.

**Parte hartzaile kopurua**

Gehienez ere 17 pertsona hautatuko dira formakuntza ibilbide honetan parte hartzeko, 6. artikuluko baldintzak bete beharko dituztenak.

**Ikastaroaren iraupena eta datak**

Formakuntza edukiak (teorika eta praktikoa) emango dira 2023ko martxotik urrira (abuztua izan ezik); egunean 6 ordu ikasgelan eta egunean 7 ordu enpresako prestakuntza praktikokoan.

**II. fasea. — Esperientzia profesionala**

Programaren bigarren fasea oinarrituko da praktika profesional batean, lan kontratu baten bidez Bizkaian kokatutako sektoreko enpresetan, ikasitakoa praktikan jartzeko eta benetako lan esperientzia lortzeko lanbidean.

Esperientzia profesionalaren fase honetan (II. fasea), parte hartuko dute 15 lagunek formakuntza lerro bakoitzeko, eta sektoreko enpresetako lanpostuetan arituko dira formakuntza fasea gainditu ondoren. Programan parte hartuko duten enpresek laguntza ekonomiko bat jasoko dute lan kontratazio bakoitzeko, BFaren Enplegu Sailak 2023rako ezarritako Kontrata Dekretuaren bidez.



Kontratuak egingo dira jasotako formakuntzarekin lotutako okupazio batean, gutxienez hiru hilabeterako, lanaldi osoan edo partzialean, betiere lanaldi partzialak ezarritako lanaldi osoaren %80 hartzen badu gutxienez.

Erabateko akonpainamendua

Ibilbidean parte hartuko duten pertsonen tutoreen laguntza izango dute formakuntzan eta kontratazioan zehar, eta aurrera egiten lagunduko diete, beren helburu profesionala eta etorkizuneko aukerak bistaratzen, eta sor daitezkeen oztopoak prebenitzen eta horiei aurre egiten.

### **5. Laguntza poltsa: zenbatekoa, ordaintzeko modua eta kobratzeko eskubidea galtzea**

Formakuntzaren hilabeteetan joan-etorrietarako eta otorduetarako dietetan laguntzeko, hilean 250 euroko poltsa ekonomikoa ezarri da parte-hartzaile bakoitzeko, sei hilabetez.

Gehienez ere 250 euroko sei ordainketa egingo dira, eta formakuntza hilabete bakoitzeko ordainduko dira, hilabetea amaitu ondoren, eta hilabeteko bertaratzea eta errendimendua justifikatu ondoren. Kobratzeko eskubidea galduko da gutxieneko bertaratzea edo errendimendua justifikatzen ez bada, edo parte hartzaileari baja ematen bazaio sortutako hilabetea amaitu baino lehen.

Hileko laguntza kobratzeko eskatzen den gutxieneko bertaratzea eta errendimendua: Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko Lanbideren indarreko araudiak eskatzen dituen gutxienekoak beteko dira ikasgelako prestakuntzan. Enpresetako prestakuntza praktikoa, ordutegiaren % 100 beteko da, enpresa bakoitzak baimentzen dituen baimenak izan ezik.

Abuztuan ez da egingo formakuntza saiorik eta ez da bekarik ordainduko.

Laguntza hori zuzenean ordainduko dio parte-hartzaile bakoitzari Teknilan Plus programa antolatzen duen erakundeak (DEMA- Enplegua eta Ekintzaitetza Foru Agentzia).

### **6. Programan parte hartzeko baldintzak eta kolektibo hartzaileak**

Programan parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Langabezian edo enplegua hobetzeko prozesuan egotea, egoera horrek programako jarduera guztietara joatea eragozten ez badu.
- Adinez nagusia izatea.
- Bizkaian erroldatuta egotea.
- Lan Baimena edukitzea, hala badagokio.

Kolektibo hauek izango dute lehentasuna:

- Emakumeek.
- 45 urtetik gorako pertsonak.
- Iraupen luzeko langabetuek (12 hilabetetik gora 18 hilabetezko aldi batean).

Parte hartzaileak hautatzeko, bereziki baloratuko da ezagutza hauek izatea:

«*Datuen Analisia*» *Formakuntza Lerroan*

- Ekonomia, Enpresa, Estatistika... alorreko gradudunak.
- Zientzia eta Teknologiako gradudunak: hala nola Biologia, Matematika, Ingeniari-tzak, Fisika, Geologia, Kimika, etab.
- Lanbide Heziketako erdi-mailako edo goi-mailako zikloak, informatikaren edo enpresen administrazioaren arloetan.
- Formakuntza Programazioan (Profesionaltasun Ziurtagiri bat edukitzea, beste bootcamp-etan parte hartzea, gutxienez 150 orduko programazio ikastaroak egin izana).
- Ingelesa jakitea.



“net garapena» formakuntza lerroa

- Zientzia eta Teknologiako gradudunak: hala nola Biologia, Matematika, Ingeniari-tzak, Fisika, Geologia, Kimika, etab
- Lanbide Heziketako erdi-mailako edo goi-mailako zikloak, informatika arloetan.
- Formakuntza Programazioan (Profesionaltasun Ziurtagiri bat edukitzea, beste bootcamp-etan parte hartzea, gutxienez 150 orduko programazio ikastaroak egin izana).
- Ingelesa jakitea.

## **7. Programan sartzeko hautapen prozesua**

1. Aurre-hautaketa: baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzea (oinarri hauen 6. puntuan jasotakoak).
2. Curriculumaren balorazioa: kontuan hartuko da hautagaiaren profil akademikoa eta profesionala, ahalik eta egokitzapenik handiena lortzeko oinarri hauen 6. puntuan baloratutako ezagutza eta gaitasunetara.
3. Maila proba, gaitasun gamifikatuen ebaluazioaren bidez.
4. Elkarrizketa pertsonala hautatutako profilei, DEMAko eta GAIako kideen eskutik.
5. Erabakia: hautapen prozesuaz arduratzen diren DEMAko eta GAIako kideek hautatuko dute azkenik zein pertsonak parte hartuko duten programan. Erabakia jakina-raziko zaie posta elektronikoki bidez programan izena emandako pertsona guztiei.
6. Erabakitzeke epea, gehienez ere, hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, erantzunik jaso ez duten eskabideak atzera bota direla ulertuko da.

## **8. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

Parte hartzeko eskaerak jasotzeko epea:

- 2023ko otsailaren 28ra arte (23:59).

Eskaerak aurkezteko modua:

Izena emateko eskaera telematikoki egingo da, curriculumara erantsita, helbide honetan:

- <https://www.dema.eus/izenaeman-teknilan>
- Informazio gehiago: [www.dema.eus](http://www.dema.eus)

## **9. Betebeharrak eta ez-betetzeak**

Azkenean hautatutako pertsonak benetan parte hartzeko konpromisoa izenpetu beharko dute programaren hasieran.

Parte hartzeko konpromisoan, betebeharrak gisa jasoko da formakuntza eta praktika-ko orduen %75era joatea, baita formakuntza modulu bakoitzaren %75era ere; halaber, gehienez ere justifikatutako 3 hutsegite egin ahal izango dira, eta gaintu egin beharko dira formakuntza moduluak dagozkien hiru azterketak eta amaierako proiektuarena, LANBIDEk dagokion profesionaltasun ziurtagiria lortzeko eskatzen dituen baldintzei jarraiki.

Era berean, hautatutako pertsonak dokumentazio hau aurkeztu beharko dute nahi-taez I. fasean hasteko unean:

- NAN (bi aldeak).
- I. fasearen hasiera datari dagokionez LANBIDEk emandako inskripzio aldien eta lan egoeraren txostena.
- I. fasea hasteko datari dagokionez, ohiko bizilekua Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoela egiaztatzen duen errolda ziurtagiria.
- Atzerritarren kasuan, indarrean dagoen lan baimena.
- Parte-hartzailearen banku-titulartasunaren ziurtagiria.



Betebehar horietakoren bat ez betetzeak programan nahitaez baja ematea ekarriko du, tutoreak prestakuntzan edo praktikan txostena egin ondoren.

Hautatutako pertsonak borondatez parte hartuko dute programan, eta funtsezkoa da jarduera guztietan inplikatzeko eta era proaktiboan jokatzeko, lortu nahi diren helburuak behar bezala betetzeko.

Erakunde antolatzaileek eta, bereziki, DEMAk, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko printzipio irmoak defendatzen dituzte eta zero tolerantziaz jokatzeko duten jarrera matxisten aurrean. Printzipio eta jokabide horiek berak eskatuko zaizkie programan parte hartuko duten pertsona guztiei.

#### **10. Datu pertsonalak erabiltzea eta babestea**

DEMAk datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzen du, eta, bereziki, 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, indargabetzen dituen 95/46/EE Zuzentaraua eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

DEMAk datuak erabiltzeko baldintzen berri ematen die erabiltzaileei, alderdi hauei dagokienez:

Tratamenduaren arduraduna

- Nortasuna: Enpresa garapena laguntzeko elkarte (DEMA-Enpresa Garapena).
- IFZ: G48408405.
- Posta helbidea. Fanderia kalea, 2, 48901-Barakaldo, Bizkaia.
- Datuen babesaren arduradunarekin harremanetan jartzeko:
  - Telefonoa: 944 189 55.
  - Harremanetarako helbide elektronikoa: [dpo-dbo@dema.eus](mailto:dpo-dbo@dema.eus)
  - Informazio guztia:  
<https://www.dema.eus/condiciones-legales-y-de-privacidad/>